



/barrixe



@barrixe

**BIZKAIKO
TEKNOLOGI**

**BERRIKUNTZAREN
INKESTA**

/2016

aurretik



bizkaiko
berrikuntza
behatokia

observatorio
de la innovación
de bizkaia



BILBOKO
MERKATARITZA
GANBERA

CÁMARA DE
COMERCIO
DE BILBAO



Hau txosten zabalago
baten laburpena baino ez
da, web honetan eskura
daitekeena.

www.barrixe.com

AURRETIK 2016

Analisi hau egiteko oinarritzat hartu dira Euskal Estatistika Institutuaren (Eustat) 2014ko Berrikuntza Teknologikoaren Inkestan bildutako datuak. Informazio hori ad-hoc eskuratu du Barrixe-Bizkaiko Berrikuntzaren Behatokiak.

Inkestak dioenez, berrikuntza teknologiko bat da produktu (edo zerbitzu) berri bat edo nabarmen hobetu bat merkatuan sartua dagoena (produktuaren berrikuntza) edota establezimenduaren barruan prozesu berri bat edo nabarmen hobetu bat sartzea (prozesuaren berrikuntza). Elementu hauexetan oinarritzen da berrikuntza teknologikoa: garapen teknologiko berrien emaitzetan, lehendik existitzen diren teknologien konbinazio berrietan edota establezimenduaren beste ezagutza batzuen erabileran. Ez dira berrikuntza teknologikotzat hartu behar antolakuntza edo kudeaketa arloetako aldaketa hutsak.

BERRIKUNTZA TEKNOLOGIETAN GASTATZEN DUTEN ENPRESAK

GUZTIRA BIZKAIAN



GUZTIZKO GASTUA BIZKAIAN

2013

1.032.976.939 €

BATEZ BESTEKO GASTUA BIZKAIAN

741.548 €

Industria: 795.604 €
Eraikuntza: 497.816€
Zerbitzuak: 738.847 €

2014

1.010.205.369 €

BATEZ BESTEKO GASTUA BIZKAIAN

783.712 €

Industria: 744.289 €
Eraikuntza: 499.537€
Zerbitzuak: 850.379 €

Teknologi Berrikuntzarako Jarduerak

Teknologi berrikuntzarako jarduerak zientzia, teknologia, antolakuntza, finantza eta merkataritza lanen multzoa dira, baita jakintza berrietarako egindako inbertsioa ere, teknologikoki berriak edo hobetuak diren produktuak edo prozesuak egitera daramaten edo eraman nahi duten jakintzak, alegia.

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %22,6k teknologi berrikuntzarekin lotutako jardueretan gastatu dute 2014. urtean, hau da, 2013an baino gutxiago (%24,5).

Bizkaian berrikuntza teknologikoetan eginiko gastua guztira 1.010 milioi eurokoa izan zen 2014an, eta horrek esan nahi du enpresa bakoitzaren batez besteko gastua 783.712 eurokoa izan zela.

TEKNOLOGI BERRIKUNTZARAKO JARDUERAK



Produktuan Edo/eta Prozesuan Berritzen Duten Enpresak

Produktu edota prozesu berritzaileak sortu dituzten Bizkaiko enpresa berritzaileen portzentajea %25,4koa izan da 2014an, hau da, aurreko urtean baino 1,1 puntu baxuagoa. 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresek produktuan (%16,8) baino prozesuan (%19,2) berritzen dute gehiago.

Produktu/zerbitzu arloko berrikuntza gehienak establezimenduan bertan egiten dira (%35,5). 2012-2014 urteen arteko negozio zifraren %88,7 aldatu gabeko edo gutxi aldatutako produktuei (ondasunak edo zerbitzuak) zor zaie (guztiz garatutakoak eta beste batzuek produzitutakoak barne).

Prozesuetan berritzen duten establezimenduei ere galdetu zaie nork garatu dituen prozesu horiek, eta kasu honetan aukera bat nabarmendu da besteen gainetik: establezimenduan bertan eginiko prozesuek %44,3ko portzentajea erregistratu dute, aurreko urtekoa baino (%41,7) handiagoa.

Bestalde, 2014an berrikuntzen %16,5 bukatu gabe zeuden, eta bertan behera uztearen tasa %5,4ra igo zen (2013an %6,8koa izan zen).

PRODUKTU (ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK) BERRIKUNTZA

GUZTIRA BIZKAIAN




2012-2014 ALDIAN MERKATURATUTAKO PRODUKTU (ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK) BERRIKUNTZEK IZANDAKO INPAKTU EKONOMIKOA.

2014KO NEGOZIO ZIFRAREN % ONDOKO HAUEK DIRELA MEDIO



2012-2014 ALDIAN ALDATU GABEKO EDO GUTXI ALDATUTAKO PRODUKTUAK (ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK), GUZTIZ GARATUTAKOAK ETA BESTE BATZUEK PRODUZITUTAKOAK BARNE.



2012-2014 ALDIAN SARTUTAKO PRODUKTU BERRIAK EDO NABARMEN HOBETUAK (ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK), ENPRESARENTZAT BAKARRIK NOBEDADEA IZAN DIRENAK.



2012-2014 ALDIAN SARTUTAKO PRODUKTU BERRIAK EDO NABARMEN HOBETUAK (ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK), ENPRESENTZAT EZ EZE, MERKATUARENTZAT ERE NOBEDADEA IZAN DIRENAK.

PROZESUKO BERRIKUNTZA

/ GUZTIRA BIZKAIAN



 MOTA



ONDASUN EDO ZERBITZU BERRIAK EDO NABARMEN HOBETUAK FABRIKATZEKO EDO PRODUZITZEKO METODOAK



ONDASUN EDO ZERBITZU BERRIAK EDO NABARMEN HOBETUAK BANATZEKO SISTEMAK EDO ONDASUN ETA ZERBITZU HORIENTZAKO SISTEMA LOGISTIKOAK



MANTENIMENDU SISTEMA, OPERAZIO INFORMATIKO, EROSKETA EDO KONTABILITATEKO OPERAZIO BERRIAK EDO NABARMEN HOBETUAK.

GARAPEN BIDEAN DAUDEN ETA BERTAN BEHERA UTZI DIREN BERRIKUNTZA JARDUERAK

/ GUZTIRA BIZKAIAN

 GARAPEN BIDEAN ZEUDENAK



 BERTAN BEHERA UTZITAKOAK



Berrikuntza Teknologikoaren Efektuak

Bizkaiko enpresen %96,7ren iritziz, berrikuntza teknologikoak efektu garrantzitsuak dauzka beren jardueraren garapenean.


Nagusiki produktuen ganean du eragina (%91,4) eta kalitate handiagoa ematen die ondasun eta zerbitzuei (%79,5). Enpresen %70,2k uste du berrikuntza teknologikoak efektu garrantzitsuak dauzkala prozesuetan, produkzioarako edo zerbitzuak emateko gaitasuna handitzen duelako (%57,9).

Enpresen %61,0ren iritziz, garrantzitsuak dira enpleguaren ganean dituen efektuak, bereziki enplegua mantentzeko (%47,9) eta enplegu kualifikatua emendatzeko (%22,1) dagokionez.


Beste efektu hauek ere azpimarratu dituzte: ingurumen, osasun edo segurtasun araudietako baldintzak betetzea (%40,2) eta inpaktu txikiagoa izatea ingurumenean (%38,2).

JARDUERA TEKNOLOGIKOAREN EFEKTUAK

EFEKTUEN GARRANTZIAREN %



/ EFEKTUEN GARRANTZIAREN %



Berrikuntza Teknologikoko Jardueretarako Informazio Iturriak

Enpresek emandako erantzunen arabera, informazioa oso aldagai garrantzitsua da enpresa berritzaileentzat beren berrikuntzak gauzatzeko orduan.

Berrikuntza teknologikoko jardueretarako informazio iturri nagusia barrukoa da, hau da, enpresetako departamenduak edo langileak (%87). Merkatutik datozen informazio iturriek portzentaje apur bat txikiagoa dute (%86,8), eta horien artean esanguratsuenak dira bezeroak (%65,9) eta ekipo, material, osagai edo software hornitzaileak (%59).

Iturri instituzionalen artean nabarmentzekoa da teknologi zentroetatik datorren informazioaren garrantzia (%35,1) eta beste iturri batzuk ere balorazio positiboak dituzte, hala nola konferentziak, azokak, argitalpenak edo sektore elkarteak (%51,2).

BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO JARDUERETARAKO INFORMAZIOAREN GARRANTZIA


INFORMAZIO ITURRI DESBERDINEN GARRANTZIAREN %



INFORMAZIO ITURRI DESBERDINEN GARRANTZIAREN %



Informazio Teknologia Berrikuntza Jarduerak Iturriak



Lankidetza Hitzarmenak Dituzten Establezimenduak


Bizkaian berrikuntzak sortzen dituzten enpresen %34k I+G-ko jardueren inguruko lankidetza hitzarmenak izenpetu dituzte beste enpresa edo erakunde batzuekin 2012-2014 aldian. Portzentaje hori 2011-2013 aldikoa baino 2,9 puntu beherago dago.

Lankidetza akordio gehienak teknologi zentroekin hitzartzen dira (%60,7) eta ondoren enpresaren edo enpresa taldearen beste establezimendu batzuekin (%49), unibertsitateekin eta goi-mailako beste irakaskuntza institutu batzuekin (%48,7) eta ekipo, material, osagai edo software hornitzaileekin (%48).

Eremu geografikoka, nagusiki Euskadin (%90,9) eta Estatuko gainerako erkidegoetan (%51) kokatutako organismo edo enpresekin hitzartzen da lankidetza. Dena den, aipatzekoa da halaber %46,5eko portzentajea dagokiela EBN kokatutako organismo eta enpresei, eta portzentaje hori nabarmen hazi dela aurreko epealdiko %38,5arekin alderatuta. Aitzitik, munduko beste toki batzuekiko lankidetza murriztu egin da, %26,4tik %12,4ra hain zuzen.

LANKIDETZA TEKNOLOGIKOA

HIZKETAKIDE MOTA




Berrikuntzaren Finantzazio Publikoa

Bizkaiko enpresa berritzaileen %53,7k laguntza finantzario publikoa jaso du 2014an, mailegu edo diru-laguntza moduan, berrikuntza jardueretarako; portzentaje hori 2013. urtekoa baino 6,1 puntu txikiagoa da.

Aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritza da laguntza gehien eman dituen administrazio publikoa (%69,2) eta Administrazio Zentrala (%36,5) eta Foru Aldundiak (%35,9) ere bai.

BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOAREN FINANTZAKETA PUBLIKOA

/ GUZTIRA BIZKAIAN



BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOAREN FINANTZAKETA PUBLIKOA

/ SEKTOREAK




Berrikuntza Eragozten Duten Faktoreak

Aztergai dugun inkestaren arabera, 2014. urtean Bizkaiko enpresen %66,9k eragozpenen bat aurkitu du bere berrikuntza jardueran; portzentajea 2013an baino 1,1 puntu txikiagoa denez, egoera hobetu dela esan liteke.

Zailtasun gehien arrazoi nagusia faktore ekonomikoak izan dira (%58,5), baina enpresaren barneko faktoreek ere portzentaje handia hartzen dute (%43,4); lehenengoak 1,1 puntu murriztu dira 2013arekiko, eta, bigarrenak, berriz, 3,1 portzentajezko puntu hazi dira.

Faktore ekonomikoen artean, enpresen erdiak baino gehiagok uste du zailtasun nagusia kostu handia dela. Bestalde, enpresen barneko zailtasunen artean langile kualifikaturik eza, antolakundearen zurruntasuna eta teknologiari buruzko informazio falta dira gabezia nabarmenenak.

BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA ERAGOZTEN DUTEN FAKTOREAK



Patenteak Eta Bestelako Babes Metodoak

2012-2014 aldian, Bizkaiko enpresen %10,4k patenteren bat eskatu du, patenteren bat indarrean zuen edo beren asmakizunak edo berrikuntzak babesteko metodoren bat erabili du. Gainera, soilik enpresa berritzaileak kontuan hartzen baditugu portzentaje hori %23koa da. Ehuneko hori 2011-2013 aldikoa baino 6,2 puntu baxuagoa da.

Bizkaiko enpresen %9,4k patenteren bat eskatu du bere enpresan garatutako asmakizunak edo berrikuntzak babesteko.

Enpresen %17,8k asmakizunak eta berrikuntzak babesteko bestelako metodoren bat erabiltzen du; horietatik erabiliena marka da (%16,7) eta, neurri txikiagoan, marrazki edo eredu industrialak (%7,5) eta egile eskubideak (%4,1).

ENPRESAN GARATUTAKO ASMAKIZUNAK EDO BERRIKUNTZAK BABESTEKO

BIZKAIKO ENPRESAK GUZTIRA



BIZKAIKO ENPRESA BERRITZAILEAK GUZTIRA



Antolakuntzako Berrikuntza


Antolakuntzako berrikuntza deitzen zaio enpresaren barne funtzionamenduan, lantokiaren antolakuntzan edo kanpoko harremanetan lehenago inoiz erabili gabeko antolakuntza metodo berriak sartzeari. Bizkaiko enpresen %16,3k horrelako aldaketaren bat egin dute 2012-2014 aldian. Ehuneko hori 2011-2013 aldikoa baino 0,2 puntu txikiagoa da.

Aldaketa portzentaje handiena lanaren antolakuntzako edo enpresako prozeduretako enpresa praktika berrietan eman da (%83,8). Enpresen %48,2k barruan garatu dituzte antolakuntza arloko berrikuntzak 2012-2014 aldian.


Antolakuntza arloko berrikuntza horiek ondorio hauetan islatzen dira: ondasun eta zerbitzuen kalitate hobea (%79), bezeroaren edo hornitzailearen premiei erantzuteko epe laburragoa (%76,8) eta informazio truke eta komunikazio hobea establezimenduaren barnean edo beste enpresa eta erakunde batzuekin (%74,4).

ANTOLAKUNTZA ARLOKO BERRIKUNTZA MOTAK ETA ERAGIN MAILA


ANTOLAKUNTZA ARLOKO BERRIKUNTZA MOTAK



BESTE ESTABLEZIMENDU, ENPRESA EDO ERAKUNDE BATZUEKIKO KANPO HARREMANAK KUDEATZEKO METODO BERRIAK




ENPRESA PRAKTIKA BERRIAK LANAREN ANTOLAKUNTZAN EDO ENPRESAKO PROZEDURETAN




LANTOKIAK ANTOLATZEKO METODO BERRIAK, HOBETO BANATZEKO ERANTZUKIZUNAK ETA ERABAKIAK HARTZEKO ARDURAK


EFEKTUAK




ERANTZUN EPEAK MURRIZTEA BEZERO EDO HORNITZAILEEN PREMIEI EGOKITZEKO



ONDASUN ETA ZERBITZUEN KALITATE HANDIAGOA



KOSTU TXIKIAGOAK PRODUZITUTAKO UNITATE BAKOITZEKO



GOGOBEETZEZ PERTSONALA HOBETZE EDO ERROTATZIO TASAK MURRIZTEA



INFORMAZIO TRUKEA EDO KOMUNIKAZIOA HOBETZE ESTABLEZIMENDUAREN BARRUAN EDO BESTE ENPRESA ETA ERAKUNDE BATZUEKIN

Merkaturatze Berrikuntza


Merkaturatze berrikuntza deitzen zaio merkataritza estrategia edo kontzeptu berriak inplementatzeari; estrategia edo kontzeptu horiek aurretik erabiltzen zirenengandik desberdinak izan behar dute eta sekula erabili gabeak. Aldaketa handia ekarri behar du produktuaren diseinuan edo ontziratzean, posizionamenduan, sustapenean eta prezioan. Bizkaiko enpresen %9,3k horrelako aldaketaren bat egin dute 2012-2014 aldian. Ehuneko hori 2011-2013 aldikoa baino 1,3 puntu txikiagoa da.

Merkaturatze arloko berrikuntzen artean sustapen teknika berriak (%75,2) eta produktuak posizionatzeko metodo berriak (%72,8) dira aukerarik erabilienak.


Merkaturatze arloko berrikuntzek ondorio nagusi hauek dituzte: bezeroaren premiei erantzuteko gaitasuna hobetzea (%80,9), produktuen ikusgarritasuna handitzea (%74,1) eta merkatu-kuota handitzea edo hobetzea.

MERKATURATZE ARLOKO BERRIKUNTZA MOTAK ETA ERAGIN MAILA

MERKATURATZE ARLOKO BERRIKUNTZA MOTAK




PRODUKTUAREN
SUSTAPENERAKO TEKNIKA EDO
KANAL BERRIAK



PRODUKTUA MERKATUAN EDO
SALMENTA KANALETAN
POSIZIONATZEKO METODO
BERRIAK




ALDAKETA NABARMENAK
PRODUKTUAREN DISEINUAN EDO
ONDASUN ETA ZERBITZUEN
ONTZIRATZEAN




ONDASUN EDO ZERBITZUEN
PREZIOAK ZEHATZEKO METODO
BERRIAK


EFEKTUAK




MERKATU KUOTA HANDITZEA
EDO HOBETZEA



PRODUKZIOA BEZERO TALDE
BERRIETAN SARTZEA



PRODUKTUAK MERKATU
GEOGRAFIKO BERRIETAN
SARTZEA



PRODUKTUEN EDO NEGOZIOEN
IKUSGARritasuna HANDITZEA



BEZEROAREN PREMIEI ERANTZUTEKO
GAITASUNA HOBETZEA



bizkaiko
berrikuntza
behatokia

observatorio
de la innovación
de bizkaia



Berrikuntzaren inguruko azken berriak ezagutu nahi dituzu?

**AZKEN LAGUNTZAK,
AZKEN ALBISTEAK,
JOERAK ETA IKASTAROAK?**

Aukera izango duzu gure Sare Sozialekin bat egiteko eta berrikuntzari buruzko argitalpen guztiak partekatzeko. Horrela, hurbilagotik jarraituko dituzu Barrixe-n berrikuntzari buruz argitaratzen diren albiste guztiak.



Issuu eta Slideshare aplikazioetan aurkituko dituzu Bizkaiko Berrikuntzaren Egoerari buruzko gure txosten guztiak.



Slideshare



Issuu



RSS

Jaso ezazu Barrixeko informazio eguneratua modu sinple batean eta zuzenean zure ordenagailuan, webean sartu beharrik gabe.



News

Harpidetu zaitez buletinera eta jaso gure Newsletter-a. Bertan aurkituko dituzu azken laguntza eta diru-laguntzak, albiste interesgarriak, agenda eta berrikuntzari buruzko informazio guztia.